


MAIZPIDE

ALDIZKARIA

2025eko apirila

LAZKAO

33. zenbakia



Ureztatu zura
Hizkuntza sustaiaiki
Hizkuntza hartasuna da
Hizkuntza hartasuna da

51. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK



IKASTAROAK.

HABEko A1, A2 mailetako azterketak prestatu eta egiteko aukera euskaltegian bertan.

B1, B2, C1 eta C2 mailetako edozein azterketa (HABE, IRALE, IWP...) prestatzeko aukera.

EGUTEGIA.

1. Uztailaren 7tik 18ra
2. Uztailaren 21etik abuztuaren 1era
3. Abuztuaren 4tik 15era
4. Abuztuaren 18tik 29ra
5. Irailaren 1etik 12ra
6. Irailaren 15etik 26ra

ORDUTEGIA.

09:00-13:30 // 15:15-19:30

PREZIOAK.

Klaseak + pentzio osoa: **528 €**

Klaseak + bazkaria: **418 €**

lazkao@maizpide.eus

www.maizpide.eus



EUSKARA, BIZI

ERREZETAK	A1	5
NOR DA NOR?	A2-A	7
GURE FILM KUTUNAK	A2-B	10
ELKARRIZKETA Alain	B1	14
ELKARRIZKETA Txetx Etcheverry	B1	15
ERREPORTAJEA Fruitu gorriak	B2-A	18
ERREPORTAJEA Mandelükogia	B2-A	20
ELKARRIZKETA Rafa Orellana Ormaetxea	B2-B	22
ELKARRIZKETA Lazkaoko zistertarren komentua	B2-B	24
ELKARRIZKETA Bertsolaritzaren lainoan	B2-EGUERDIA	25
ELKARRIZKETA Goierriko herri txiki batzuetako alkateak	C1-A	28
IKASLE BERRIEI GALDEZKA Atzerritarrak Maizpiden	C1-B	35
ERREFERENTZIAK	C1-B	36
DENBORA-PASAK	C1-B	38
IPUINA Rimmel	C1-B	40
IPUINA Kukua	C2	42

MAIZPIDE ALDIZKARIA. Lege gordailua: SS-0292/04

Parte hartzaileak: MAIZPIDE euskaltegiko ikasle eta irakasleak

Azala: Lexuri Vazquez Martinez

Inprimategia: Antza Komunikazio Grafikoa (Lasarte-Oria)

Diseinua eta maketazioa: Antza Komunikazio Grafikoa (Lasarte-Oria)



BAKAILAO FUSIOA

Kaixo!

Euskaltegian zazpi ikasle gara, eta errezeta batzuk prestatu ditugu bakailaoarekin. Zazpi herrialde edo jatorri, bakoitzak errezeta bat.

Gozatu!!!

GALIZIA: BAKAILAO ENPANADA

OSAGIAK

- 2 tipula
- 2 piper berde
- 2 baratxuri
- $\frac{3}{4}$ bakailao
- Piper hautsa
- Tomate saltsa
- 2 ore
- Arrautza bat

1



TRESNAK

- Zartagin bat
- Sardexka bat
- Labea

JARRAIBIDEAK

1. Zatitu tipulak, piper berdeak eta baratxuriak.
2. Gorritu ondo dena.
3. Gero bota bakailaoa, piper hautsa eta tomate saltsa. Bost minutuz sutan jarri.
4. Gero hartu dena eta ore gainean jarri.
5. Estali beste ore batekin, margotu arrautzarekin eta labean sartu hogeita minutuz berrehun gradutan.
6. Eta kito! On egin!



PERU: CEVICHE

OSAGIAK

- 3 aji limo
- Bakailao bat
- 12 limoi
- Gatza
- Tipula txiki bat
- Baratxuria
- Piperbeltz pixka bat
- Martorri pixka bat
- Artaburua eta batata

2

TRESNAK

- Labana
- Koilara
- Bitsadera
- Egurrezko ohola
- Zukugailua
- Ontzia
- Lapikoa

JARRAIBIDEAK

1. Garbitu eta zatitu kubo forman bakailaoa.
2. Garbitu eta limoia zukutu.
3. Garbitu eta txikitu aji limo eta tipula.
4. Bota bakailaoa, limoia, tipula, baratxuria eta aji limo ontzira. Bota martorria, gatzia eta piperbeltza.
5. Nahastu.
6. Bota artaburua, batata eta ura lapikora, irakin 15 minutuz.
7. Zerbitzatu dena plater batean.
8. Jan eta on egin!

KATALUNIA: EMPEDRAT

3

OSAGAIK

- 400 g baba txiki egosi
- ½ tipula txikia
- ½ piper berdea
- ½ piper gorria
- Tomato bat

- 2 arrautza egosi
- 200 g bakailao gezatu papurtu
- 80 g oliba beltz
- Oliba olioa
- Ozpina
- Gatza

TRESNAK

- Ontzi bat
- Labana bat
- Ebakitzeko taula bat
- Azpil bat

JARRAIBIDEAK

1. Tipula txikia eta piperrak txikitu zatitxo txikietan. Gero, tomatea eta arrautza egosiak txikitu.
2. Bota dena ontzira. Erantsi baba txikiak eta bakailaoa eta nahasi.
3. Ozpina-olioa egin oliba olioarekin, ozpinarekin eta gatz eta piperbeltzarekin.
4. Azpilean zerbitzatu olibekin eta ondo zerbitzatu, fresko.
5. Ardo zuriarekin primeran. Txakolina posible da, ezta?



EUSKAL HERRIA: BAKAILAOA PIL-PIL ERAN

4

OSAGAIK

- 8 zati bakailao
- ¼ l olio
- 4 baratxuri ale
- Gatza

- Pipermina
- Perrexila
- Piper gorri erreak
- Arrautza egosiak

TRESNAK

- Buztinezko lapikoa
- Labana
- Koilara

JARRAIBIDEAK

1. Bakailaoa gezatu.
2. Buztinezko lapikora bota olio ona, lau baratxuri xerratan moztu eta frijitu. Gero kendu platerera.
3. Bota lapikora bakailao zatiak, gatz pixka bat bota eta lapikoa pixkanaka-pixkanaka mugitu. Arrainak gelatina askatuko du eta olio lodituko da gelatinarekin.
4. Irakin, baina oso gutxi.
5. Arrautza egosiak, piper gorri erreak eta perrexila bota.
6. Zerbitzatu lapikoan, bero-bero.



DOMINIKAR ERREPUBLIKA: ARRAIN GISATUA

5

OSAGAIK

- Tipula 1
- Olio
- Ozpina
- Piperbeltza
- Tomato saltsa
- Bakailao txikitua



TRESNAK

- Zartagina
- Labana
- Koilara
- Egurrezko ohola

JARRAIBIDEAK

1. Txikitu tipula.
2. Zartaginera bota, bota piperbeltza eta gorritu.
3. Bota ozpina eta tomate saltsa.
4. Gehitu bakailaoa.
5. Utzi hamar minutuz.



NIKARAGUA: ARRAIN FRIJITUA

6

OSAGIAIAK

- Arrain bat
- Olioia
- 2 tipula
- 3 tomate
- Platano bat
- 250 g irin
- Gatz pixka bat
- Piper berde bat
- 300 g tomate saltsa
- Piperbeltz pixka bat
- Baratzuri ale bat
- Azukre pixka bat
- ½ limoia



TRESNAK

- 3 zartagin
- Ontzia
- 2 labana
- Egurrezko ohola
- Egurrezko koilara
- Sardexka
- Sukaldeko papera

JARRAIBIDEAK

1. Garbitu eta lehortu arraina.
2. Nahastu irina, gatz eta piperbeltza, eta pasatu arraina bertan.
3. Bota olio asko zartaginera, eta berotu.
4. Frijitu arraina.
5. Bota olioia zartaginera, eta berotu.
6. Bota tipula, piperra, tomatea, gatz pixka bat eta piperbeltza.
7. Gorritu.
8. Bota olio asko zartaginera eta berotu.
9. Bota platano zatituak zartaginera.
10. Kendu platanoa oliotik.
11. Bildu platanoa.
12. Frijitu kurruskari.
13. Zerbitzatu arraina, barazkiak eta platano frijitua elkarrekin.

HONDURAS: ARRAIN ETA PATATA ERREGOSIA


7

OSAGIAIAK

- Kilo eta erdi bakailao
- Oliba olioia
- Tipula 1
- 3 baratxuri ale
- 4 azafrai hari
- ½ koilaratxo txikote hauts
- 2 patata
- Gatz pixka bat
- Piperbeltz pixka bat
- Arrain salda

TRESNAK

- Zartagina
- Labana
- Egurrezko ohola
- Ontzia
- Egurrezko koilara



JARRAIBIDEAK

1. Zartagina berotu.
2. Bota olioia zartaginera eta berotu.
3. Erregosi tipula, baratxuria eta azafrai hariak.
4. Zuritu patatak eta moztu zatika.
5. Gehitu patatak eta arrain salda.
6. Egosi.
7. Ipinu arraina eta prestatu.
8. Sua jaitsi eta bost minutuz utzi.
9. Gehitu gatz eta piperbeltza.
10. On egin!

NOR DA NOR ?

Abeslaria da.
Hizkuntzak gustatzen
zaizkio.
Bere ama mexikarra
zen.

Lapurtarra da.
Erizain laguntzailea da.
Mendian ibiltzea maite
du.

Ingalaterran jaio zen.
Maratoilaria da.
Coca-cola zalea da.

Motorrak gidatzea da
zaletasun handiena.
Gasteizen jaio zen.
Ospitalean egiten du
lan.

Iparraldekoa da.
Kirol asko egiten du.
Surf irakaslea da.

Korrika egitea maite du.
Etorkizunean euskaraz
hitz egin nahi du.
Gihar gelara joaten da.

Musika
kontzertuetara
joatea gustatzen zaio.
Medikua da.
Katu beltza du.

Nafarroako
Sakanakoa da.
Erizain erretiratua da.
Sukaldean aritzea
gustatzen zaio.

Kayakean ibiltzea
gustatzen zaio.
Autobus gidaria da.
Urdulizkoa da.






JORGE




BLANCA



KATHRYN



LILY



ALEX



ELENA



MOOR



AGURTZANE



MARITXU



GURE FILM KUTUNAK

Herrialde askotako filmen artean aukeratutakoak dituzue lan honetan.

Istoria eta ikuspegi ezberdinetakoak dira.

Espero dugu zuen gustukoak izatea !

Sinopsia eta fitxa teknikoa irakur ditzakezue.

KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL

- URTEA: 2006
- ZUZENDARIA: Mireia Gabilondo, Fernando Bernués
- AKTOREAK: Karlos Zabala, Anjel Alkain, Ainere Tolosa
- GENEROA: Komedia – drama
- HERRIALDEA: Euskal Herria
- HIZKUNTZA: Euskara

SINOPSIA:

Juan Martin gaztea euskara ikaslea da. Euskaltegian dago. Oporretan baserrira joan da euskara praktikatzera. Baserrian bizitza berria, ohitura berriak eta euskara desberdina, "euskalkia", aurkituko ditu.

Film dibertigarria da, ikasle guztiok egoera horiek bizi izan ditugu. Filma laurogeiko hamarkadan giroturik dago. Euskaltegietan euskara batua ikasten hasi dira. Herrietan, poliziaren errepresioa handia da garai horretan.



ETORRERA (ARRIVAL)

- URTEA: 2016
- ZUZENDARIA: Denis Villeneuve
- AKTOREAK: Amy Adams, Jeremy Renner eta Forest Whitaker
- GENEROA: Zientzia-fikzioa
- HERRIALDEA: Ameriketako Estatu Batuak
- HIZKUNTZA: Ingelesa


SINOPSIA:

Zientzia-fikzioko kontaketa txinatar batean oinarritutako film honek hizkuntzalari baten (Louise Banks) istorioa kontatzen du.

Egun batean, munduko hiri batzuetan espazio-ontzi estralurtarrak agertu dira eta protagonistak bisitarien hizkuntza argitu beharko du Gobernuak lankidetzak ez diolako.

Hizkuntzalaria, Louise, hizkuntza berri baten bidez, bizitza ez dela lineala konturatu da.

Dena batera hasi eta amaitzen da, ez du bukaerarik. Denbora-paradoxen istorio eder bat da, soinu-banda handiarekin.



BLACK RAIN

- URTEA: 1989
- ZUZENDARIA: Ridley Scott
- AKTOREAK: Michael Douglas, Andy Garcia, Ken Takakura, Yusaku Matsuda
- GENEROA: Akziozko filma
- HERRIALDEA: Ameriketako Estatu Batuak eta Japonia
- HIZKUNTZA: Ingelesa eta japoniera

SINOPSIA:

New Yorkeko bi poliziak, Nickek eta Charlie, Japoniako "Yakuza" bat, Sato izena duena, harrapatu dute.

Estatu Batuetatik Japoniara eraman nahi dute, baina bidean, hegazkinean, beste "Yakuza" batek askatu nahi du Sato, bere taldekoa delako. Bi poliziek Japoniako Matsumoto agentearekin Sato aurkitu nahi dute.

Film hau Japoniako Yakuzari buruzko istorioa da. Eta minbiziak jota hildako Yusaku Matsuda aktore japoniar ospetsuaren azken lana da.



EN CORPS


- URTEA: 2022
- ZUZENDARIA: Cedric Klapisch
- AKTOREAK: Marion B., ...
- GENEROA: Komedia/drama
- HERRIALDEA: Frantzia
- HIZKUNTZA: Frantsesa

SINOPSIA:

Elise, 26 urtekoa, dantzari klasiko handia da. Ikuskizun batean, Elisek erori eta hanka hautsi du. Fisioterapeutak esan dio ezingo duela dantza egin... Deprimitu egin da. Orduan, dantza garaikideko konpainia batera hurbiltzea erabaki du. Elisek jende asko ezagutuko du, bizi esperientzia berriak egingo ditu, etsipenak, itxaropenak izango ditu.

Dantzatzeke beste modu bat aurkitu du, eta bizitzeko modu berri bat ere bai.

Pertsonaiak maitagarriak dira (batez ere dantzaria eta François Civil aktorea). Dantzatzeke gogoia ematen du. Istori ederra da mundura irekitzeko eta norbere burua ezagutzeko.





MAIXABEL

- URTEA: 2021
- ZUZENDARIA: Iciar Bollain
- AKTOREAK: Blanca Portillo, Luis Tosar, Urko Olazabal
- GENEROA: Drama
- HERRIALDEA: Euskal Herria
- HIZKUNTZA: Gaztelania

SINOPSIA:

Maixabel Lasak senarra galdu du ETA erakundearen atentatu batean. Hamaika urte geroago senarraren hiltzaileetako batek harekin hitz egin nahi du. Hiltzaileak harremana hautsi du erakundearekin eta zigorra betetzen ari da Langraitzen.

Maixabelek, asko pentsatu ondoren, presoarekin hitz egingo du. Jendeak galdetzen dio zergatik hitz egin nahi duen hiltzailearekin. Maixabelek esaten die denok dugula bigarren aukera bat izateko eskubidea.



ANE

- URTEA: 2020
- ZUZENDARIA: David Perez Sañudo
- AKTOREAK: Patricia Lopez Arnaiz, Nagore Aranburu eta Jone Laspiur
- GENEROA: Drama
- HERRIALDEA: Euskal Herria
- HIZKUNTZA: Euskara

SINOPSIA:

Familia baten istorioa da. Gasteizen bizi dira, garai horretan auzoan istilu asko gertatu dira. Egun batean ama konturatu da alaba ez dela etxera itzuli eta jakin du alabak bizi modu bikoitza duela.

Film honetan gizartea islaturik agertzen da.

Goya sarietan bost izendapen lortu zituen, eta lau eskuratu. Patricia Lopez Arnaizek emakume interpretazio onenarena, Jone Laspiurrek errebelazio aktore onenarena, gidoi egokitu onenarena eta 2021eko film onenarena.



NON DAGO MIKEL?

- URTEA: 2020
- ZUZENDARIA: Amaia Merino eta Miguel Angel Llamas
- AKTOREAK: Mikel Zabalzaren familia
- GENEROA: Dokumentala
- HERRIALDEA: Euskal Herria
- HIZKUNTZA: Euskara

SINOPSIA:

Film honen protagonista Mikel Zabalsa da, autobus gidaria. Gu bezalako herritarra da. 1985eko udazkenean, bat-batean, Guardia Zibilak Mikel atxilotu zuen arrazoi argirik gabe... Intxaurrondoko kuartelean torturatu egin zuten. Horren ondorioz, Mikel hil egin zen. Eta bere hilotza Bidasoa ibaian aurkitu zuten... Dokumentalean zer gertatu zen azaltzen du oso bare. Guardia Zibilaren lanaren zati bat ezagutu dezakegu.

Bestalde, Guardia Zibilaren kontrako manifestazio zatiak ere ikus ditzakegu dokumentalean. Kaleko manifestatzaileen berotasuna eta Mikelen familiaren baretasunaren kontrastea oso argia eta ikaragarria da.

Mundu osoak gertaera hori jakin behar du. Eta pentsatu behar du erregimen demokratikoak nolakoa izan behar duen eta horrela izateko nola konpon dezakegun...





Alain, gure ikaskidearen bizitza berezia

Elkarrizketa honetan, Alainen ibilbidea aurkeztu eta kontatu-ko dizuegu. Alain Parisekoa da eta 72 urte ditu. Bere bizitzan zehar petrolio eta gasaren inguruan lan egin du. Hasieran, plataformak eraikitzen aritu zen itsasoan. Gainera, ingeniaria zen eta Estatu Batuetan hasi zen ikasten. Gero ELF eta Total enpresetan hasi zen lanean, eta 40 urtez aritu zen bertan. Bere lanari esker aukera izan zuen hamaika bidaia egiteko.

Entzun dugu bidaia asko egin zenuela, kontatu ahal diguzu zerbait horri buruz?

Nire lanagatik, munduan zehar bidaia asko egin nuen eta leku desberdinetan bizi izan naiz, adibidez: Estatu Batuetan, Brasilen, Argentinan, Bolivian, Angolan, Errusian eta Norvegian.

Beraz, zenbat hizkuntza dakizu ?

Ingelese, noski, hizkuntza nagusia zelako lanean. Hala ere, nire filosofia beti izan da bertako hizkuntzak ikastea eta erabiltzea. Adibidez, Brasilen izan nintzenean lehen aldiz, kooperante eta irakasle gisa aritu nintzen eta horregatik portugesez hitz egiten ikasi nuen bi hilabetez, beharrezkoa zelako. Portugesari esker, ez zen hain zaila izan gartzelania ere ikastea.

Errusiera ere ikasi nuen Parisen, eskola batean. Matematika ikasi nuen eta beharrezkoa zenez beste hizkuntza bat ikastea, errusiera aukeratu nuen.

Norvegian, lau urte pasatu nuen eta bertako hizkuntza ikasi nuen. Lortu nuen idaztea, baina niretzat zaila zen hitz egitea. Eta orain euskara ikasten ari naiz.



Eta aipatu duzuna da euskara ikasteko arrazoi nagusia?

Bai, nire filosofiarekin jarraitzen dudanez, horretan ari naiz. Euskal Herrian bizi naiz, bai Iparraldean (Jatsun), bai Hegoaldean (Donostian). Horregatik, hemengo hizkuntza ikastea normala eta beharrezkoa dela iruditzen zait. Gainera, jubilatuta nago eta nire ikuspuntutik, nire oraingo egoera oso desberdina delako, errazagoa da kultura ezagutzea eta euskara praktikatzeari lehen baina.

Badaukazu hizkuntza kuttunik ?

Ez, oraintxe euskara asko gustatzen zait, baina ez daukat ez lurralderik ez hizkuntzarik nahiago dudarik. Hain zuzen, Euskal Herria maite dut eta nire asmoa hemen bizi-zea da.

Zein hizkuntza izan da zailena ikasteko ?

Nire ustez, errusiera izan zen zailena, baina garai hartan hizkuntzaren irakaskuntza desberdina zen. Ikasi nuen errusiera zaharra nolabait esateko, eta uste dut oraindik bitxia dela errusiar zaharra ikastea.

Bukatzeko, badaukazu trikimailurik hizkuntzak ikasteko?

Komikiak erabili, euskaraz aurkitu ditzakegu komiki oso onak edozein gairi buruz. Bestalde, biziki gustatzen zait Euskal Herriko literatura berria, adibidez, Bernardo Atxaga.

Txetx Etcheberry:

“Nik beti konfiantza osoa eman diot kolektiboari, eta, horrela lan eginda ez dago konponbiderik gabeko arazorik”

Aurkeztu zeure burua.

Ni Txetx Etcheberry naiz, Donibane Garazin, Behe Nafarroan, sortu nintzen eta Baiona Ttipian, Baionako alde zaharrean, bizi naiz. Ene bizitza osoa pasatu dut militatzen bai mugimendu abertzaleetan, bai hainbat erakunde ekologista eta solidariotan. Betidanik hitz egin dut pixka bat eta gaizki euskaraz, eta, gaur egun, erabaki dut sakonago ikastea eta horretarako etorri naiz Maizpidera duela bi hilabete eta erdi, eta orain ene helburua ondo ikasi arte ikasten segitzea da.

Nondik jaso duzu militantzia....

Nire familiatik ez, behintzat, zeren eta nire familia ez zen batere militantea, ez zuen engaiamendurik eta eskuinekoak ziren, barnealdeko euskaldun ia-ia guztiak bezala garai hartan, Iparraldean esan nahi dut. Baina, hamahiru urterekin, mugimendu abertzalekoak ziren gazte batzuekin topatu nintzen. Eta, momentu berean, banuen Euskal Herria zerbait galtzen ari zen kontzientzia bat. Horrez gain, jabetzen nintzen munduan zehar injustizia bazela, eta bereziki hirugarren munduan; izan ere, garai hartan munduan urtero hogeita hamar – berrogeita hamar milioi pertsona gosez hiltzen ziren. Hori dena nire nerabe buruan ez zen kokatzen, pentsatzen nuen sistema hori gaizki zegoela, eta aldatu egin behar zela. Horrela, erabaki nuen nire bizitza osoa helburu horri eskaintzea.

Gogoratzen duzu hasi zineneko oroitzapen bereziren bat? Ondo gogoratzen duzun momentu zehatzen bat?

Gogoratzen dut hamahiru-hamalau urterekin jadanik hasi ginela eskaera batzuk egiten, gure eskolan euskara ikastaroak emateko, esaterako. Gero “Bai euskarari” sortu zen, hirurogeita hamazortzian, zazpi probintzietan euskararen alde egiteko kanpaina, eta biziki ongi gogo-



ratzen naiz Donibane Garazin pegatu nuen lehen pegatina horixe izan zela.

Horrez gain, esango nuke hamalau-hamabost urterekin edo, Donibane Garazin lokala ireki genuela, Garaziko kantonamenduan. Beste hainbat gauzaren artean, ostalaritzan lan egiten zutenen alde egiten genuen, euren eskubideak zein ziren erakusteko. Izan ere, garai hartan esplotazio handia zegoen sektore honetan; gazteek uda osoan egiten zuten lan atsedenik gabe, aparteko ordu ugari, aparteko pagarik gabe... Ez zekiten eskubideak zituztela, eta informatzeko lan batzuetan hasi ginen orduan.



Iparraldean aritu zara?

Bai. Hala ere ez Iparralde osoan, Garazi eta Baigorriko kantonamenduan. Ni hamasei urte arte bizi izan naiz 8 edo 10 kilometroko erradioan, eta orduan nire inguru osoa Garazi zen.

Zertan aritu zara? Zergatik proiektu horiek?

Laburbiltzen saiatuko naiz... Gazte nintzenean *Patxa* mugimendua sortu genuen: Ipar Euskal Herriko gazte-kolektibo abertzalea zen, eta kanpainak burutu genituen arlo anitzetan: gaztetxeak, intsumisia, feminismoa, preso politikoak, etxebizitza okupatzioa, etab. Rock radikal kontzertu asko antolatzen genituen: Hertzainak, Kortatu, La Polla Records... Eta gero, 30 urterekin beste gauza batzuk antolatzen genituen; adibidez, 1996an, *EHZ* musika festibala sortu genuen.

Bestela, *Abertzale Batasuna* deitzen den mugimendutik bultzatu genituen Iparraldeak instituzio propioak izateko lehen mobilizazioak, euskal departamenduen aldeko manifestazio erraldoiak eta etengabeko borrokak. Izan ere, Iparraldea, orduan, ez zen Pyrenees Atlantikeko departamentuaren parte bat besterik, ez genuen erabakitze gaitasunik, eta desobedientzia zibileko ekintza oso indartsuak egin genituen *Demo* mugimenduarekin.

Laborariekin eta gizarte zibilarekin batera, 2005eko urtarrilean, *Euskal Herriko Laborantza Ganbararen* sortzean parte hartu nuen. *EHLG* alternatiboa da, ingurumena errespetatzen duen laborantza-eredua defendatzea helburu duena. Estatuak sortzen ez zuenez, instituzio propio baten sorrera izan zen, nolabait.

Horrez gain, jabetzen ginen munduan aspalditik existitzen zen aldaketa klimatikoa ere fenomeno berria izaten ari zela munduan, eta gai hori lantzea erabaki genuen. Horren ondotik sortu genuen gure lehen mugimendua, *Bizi* izeneko. Pentsatu genuen Euskal Herri burujabea ezin izango zela instituzioekin bakarrik eraiki, eta behar genuela gure energia, elikadura... burujabetza eraiki. Zeren, bestela, nazio independente bat izan liteke, baina baliabideak kanpotik lortu behar izanez gero, beste estatuen menpe egongo ginateke. Orduan hasi ginen alternatibak bilatzen: tokiko



energia ekoizten zuten erakunde batzuk, euskal moneta... Azken hau, *Euskoa*, adibidez, Europako lehen tokiko moneta bilakatu da, eta gaur egun muga nola gainditu eta Hegoaldean nola garatu aztertzen ari gara.

Azkenik, azken urteetan ikusi dugu Iparraldeko auzo herrikoietan, auzo sozialetan, jendea oso bakarrik eta bakartuta geratzen dela. Beraz, erabaki genuen auzo eta eremu herrikoetan gure lana garatzea, eta orduan *Alda* mugimendua sortu genuen duela lau urte, eta arrakasta handia ukan du oso fite.

Zure ustez, Iparraldea aldatu da edo ez ?

Askok! Ene gazte denboran, abertzale oso gutti ginen, eta, gainera, oso marginalizatuak eta diabolizatuak, elkarrekin kultural batean izateagatik, jendeak pentsatzen zuen gu terroristak ginela. Gaur egun, iparraldean denek erraten dute euskararen alde direla, ikastolen alde, nahi dutela autonomia mota bat Ipar Euskal Herriarendako, eta orduan eremu asko irabazi dugu, eta gaur ehunka erakunde alternatibo dira iparraldean. Horietan, milaka pertsonak bere burua formatzen dute. Geroa bere gain hartzen ikasten dute. Eta hori da, ene ustez, garrantzitsua, nola lortzen guzun zure herria auto-antolatzea. Gaurko eta biharko aldaketa herritik etorriko da, eta gizarie berria ere bai.

Denbora asko eskaini diozu militantziari?

Bai, baina ez nik bakarrik. Militante andana ginen. Gure bizia militantziarekin hazi zen eta guk gure bestak militantziaren markoan egiten genituen.

Eta posible al da aktibista izateari uztea?

Posible da, baina nik ez dut horretarako gogorik. Bueno, pixkanaka-pixkanaka denborarekin ardura batzuk hartzen ditugu, eta inportantea da erreleboak eraikitzea. Nik iaz ene ardura guztiak transmititu nituen eta erabaki nuen urte sabatiko bat hartzea, beste gauza batzuen artean, euskara ikasteko. Gero itzuliko naiz, noski, militantziara, baina ez lehen lerrora. Militantziaren efikaziarako oso inportantea da formakuntza. Nik formakuntza lana egiten dut eta hor jende asko falta zaigu. Lehen leerroan direnak lagunduko ditut. Nire bizia da eta gauza asko

ekarri dizkit. Nik ez nuen jaso formakuntzarik, baina jende interesgarri eta eskuzabal asko ezagutu dut eta horrek formatu nau.

Zer behar da militantzian denbora luzean ibiltzeko?

Hiru gauza behar dira: lehenengoa, militantzia alaia izatea. Bigarrena, militantziaren bidez ikastea. Nire etxean, adibidez, ez zegoen libururik eta militantziari esker ikasi dut dena. Azkenik, eraginkorra izan behar du, garaipenak lortu behar ditugu eta gauzak aldatzen direla ikusi.

Zer esango zenieke gazteei? Zer erronka ikusten dituzu orain?

Nik Iparraldean ikusten ditudan gazteak oso onak atzematen ditut. Nik bai gazteei bai zaharrei ber gauza erranen nieke: esperientzietatik eta akatsetatik ikasi behar dugu. Gu kolektibo bat izan gara eta horrek permititzen dizu gauzak ongi egitea. Denen artean ikusten dira konponbide hoberenak. Nik beti konfiantza osoa eman diot kolektiboari, eta, horrela lan eginda, ez dago konponbiderik gabeko arazorik.

Zein dira harro sentitzen zaren hiru gauza? Edo ze opari eman dizu bizitzak?

Ez dakit... esango nuke bizitza osoa. Inportanteena bizitzan zoriotsu izatea da. Adibidez, oso kontent sentitu gara, nahiz beti ez izan, alimaleko apustu bat egiten genuenean. Ez genuen zentimorik gure atzean eta orduan bururatu zitzaigun EHZ Festibala antolatzea eta alimaleko apustua lortu genuen. Hor sentitzen duzu zerbait gertatu dela, horrelako giro bat sortzen dela, zerbait lortu duzu.

Lurramaren kasuan berdin, sortu genuen ekitaldi bat urtero iragaten dena, garai hartan zen alimaleko apustu bat eta lortu genuen lehen urtetik. Egundoko arrakasta ukan zuen.

Eta, noski, Laborantza Ganbararen garaipena eta Alternatiba mugimendua. Alternatibaren ekitaldi bat sortu genuen Baionan, eta gero, klimaren aldeko dinamika zabaltzeko Frantziako estatu osoan, 130 hiritan, eta gero Senegalera, Haitira, etab.




Fruitu gorriak

Plan ederra izaten da mendira joan eta basoan aurkitzen ditugun fruitu txikiak bildu eta jatea, ezta? **Ahabiak, mugurdiak, masustak**, eta **andere-mahatsak** aurki ditzakegu gure mendietan. Zuhaitz, landare eta sasietan jaiotzen diren fruitu horiei fruitu gorri edo baso-fruitu deitzen diegu. Mendira joateko astirik ez baduzu, edo mendian korrika ibiltzen den horietakoa bazara, lasai, zuk zeuk landatu ditzakezu eta. Zaporeari dagokionez, ez dira asko aldatu, ez ditugulako asko landatzen. Arrazoi horregatik, bere bizi-iraupena ez da hain luzea, behin fruitua jaso eta gero.



Hiztegi lagungarria

- Ahabia: myrtille/ arándano/ blueberry
- Mugurdi: framboise/ frambuesa/ raspberry
- Masusta: mûre/ mora/ mulberry
- Andere-mahatsa: groseille/ grosella/ currant



Noiz landatu fruitu gorriak?



Fruitu gorriak basatiak izan daitezkeen arren, landatu ahal ditugu. Landatzen ditugunean, bere landareak eta fruituak handiagoak izaten dira basatiak baino; eta landareak edo zuhaixkak bi metroraino handitzen ahal dira. Lehenik eta behin, noiz landatu jakin behar dugu. Bakoitzak bere garaia du, baina gomendagarriena neguan landatzea da.

Lurraz azidoa izan behar du, adibidez, pinudietako lurra. Eguzkitan ongi hazten dira, baina ez dute berorik behar, eta, gainera, neguan hotza behar dute: urtean 300 ordu behar dute 7 °C baino guttiagoko tenperaturan. Euskal Herrian euri asko egiten duenez, ez dute ur askorik behar. Batzuetan, uda oso beroa delarik, ureztatu egin behar dira.

Fruituak landatzean, kontuan hartu behar dugu ilargiaren argia; izan ere, badirudi ilbeheran argia behar dutela. Neguan landarea hazten ari da, eta garrantzitsua da erdian diren adarrak moztea, zeren eta zuhaixka zabalean hazten bada, eguzki gehiegi hartuko du. Hori da sustaiak indartzeko lehen urteko lana. Bigarren urtean ere segi behar da neguan adarrak moztzen, eta bereziki lore guztiak kentzen zuhaixka forma egokia emateko, eta baita indartzeko ere. Hirugarren urtean, adarrak berriz moztu behar dira, baina komeni da emeki egitea, loreak fruitu bihurtuko direlako.

Noiz eta nola jaso behar dira?

Uztaren garaia sei hilabete irauten du: maiatzetik urrira. Hauek kaltetu daitezkeen fruituak dira, sentikorak, bigunak eta malguak dira eta. Horregatik, eskuz jaso behar dira. Mugurdiak eta masustak zaurgarriagoak dira, marmitsuagoak direlako, eta heldutakoan bildu behar dira. Fruitua hatz artean hartu behar da, eta, arretaz, zurtoinetik erraz askatzeko gai izan behar dira.



Fruituak, posible bada, goizean jaso behar dira, edo, bestela, arratsaldean. Euria ari duenean hobea da **olana** erabiltzea estalkiaren orde, hezetasuna mugatzeko.

Fruituak zutik biltzea posible da, fruituak gizakiaren altueran daudenean. Ahabien kasuan, egoera hori landatu eta 7 urtera gertatzen da, eta 3 urtera andere-mahatsen, mugurdien eta masusten kasuan.

Garrantzitsua da ekoizpena ondo antolatzea. Ahabiak urtean behin biltzen dira, 15 egunetan. Andere-mahatsak, mugurdiek eta masustek beste antolaketa bat dute: urtean bi ekoizpen epe, biak bi hilabetekoak, tartean bi hilabeteko atsedena eginez bitartean.

Fruitu hauek jaten ditugunean, martxotik abuztura bitartean, gehienetan Poloniatik etortzen dira, baina posible da hemengoak ere aurkitzea. Abuztu eta urri artean, Espainiatik edo Marokotik etortzen dira. Bestenaz, Hego Amerikatik etortzen dira; bereziki, Perutik.

Zein propietate dituzte fruitu-gorriak?

Oro har, fruitu gorri guztiek antzeko propietateak dituzte. Ahabiak, esate baterako, antozianina ugari du. Presio arteriala eta kolesterola murrizten laguntzen dute. Zuntz asko dutenez, pisuari eusteko balio dute. Garunerako ere onak dira.

Mugurdiak aberatsak dira potasioan eta zuntzean. Onak dira bihotzerako, digestioa errazten baitute. Horrez gain, diabetesa kontrolatzeko lagungarriak dira, eta baita begien osasuna zaintzeko ere.

Masusten K bitaminari eta magnesioari esker, hezurak indartu daitezke; eta zauriak sendatzeko ere balio dute. Gainera, gernu-infekzioa baldin baduzue, fruitu gorriak jatea ona izango da.

Oso gomendagarria da ahabiak jan baino lehen ez garbitzea, zeren eta bere azalaren inguruan geruza bat dute, eta hor daude ia bere propietate guztiak. Ekologikoak ez direnak garbituta saltzen dituzte, eta beraz, propietate asko galtzen dituzte.

Ekologikoak ala ez?

Azken urteotan, asko hitz egiten da elikadura ekologikoari buruz. Baina, ba al dakigu zer esan nahi duen? Hona hemen ekoizpen ekologikoaren eta ohikoaren (industrial) arteko desberdintasunak.

Batetik, erabiltzen diren ongarriak ditugu. Adibidez, ohiko ekoizpenean ongarri sintetikoak botatzen dituzte uraren bidez, eta horrela, askoz merkeagoak dira. Gainera, laborategitik etortzen dira ongarriak. Ekologikoan, aldiz, bertako simaurra erabiltzen dugu, eta horrek esku-lan handia dakar. Baina, beste aldetik, hondakinak kudeatzen laguntzen digu.

Bestetik, landarearen inguruko mantentze-lanak oso desberdinak dira. Ohikoetan belar-pozoia botatzen dute, eta horrekin nahikoa da ingurua mantentzeko. Hori hilero bi orduko lana da, baina pozoi horiekin fruituak eta ingurua kutsatzen ditugu (errekak, fauna eta landaredia basatia, etab.).

Labur esanda, ekologikoa osasungarriagoa eta arduratsuagoa da naturarekin, baina lan handiagoa dauka emaitza "bera" lortzeko.

Non eros ditzakegu fruitu gorri ekologikoak?

Orain fruitu gorrien ekoizle gutxi dago Euskal Herrian. Dena den, Goierri, Zegaman, hain zuzen, badugu bat; BASOBERRI du izena, eta bertatik saltzen dituzte bere fruitu gorri ekologikoak maiatzetik urrira arte.

Hala ere, Euskal Herrian oso kontzientziatuta gaude bertakoa eta ekologikoa erostarekin. Eta aukera asko ditugu herri guztietan. Adibidez, Goierri denda ekologiko ugari aurkitu dezakegu. Jarraian, batzuk aurkeztuko dizkizuegu:

LAZKAON

- Biziola
- Ekilore

BEASAINEN

- Hurbilko jalea
- Hiru belar-denda daude
- Asteartero azoka dago

ORDIZIAN

- Goierriko Nekazaritza Kooperatiba
- Elikaleku
- Goierriko Baratza
- Asteazkeneko azoka dago

LEGORRETAN

- Bizi



Mandelükogia

Ogia gure eguneroko plater guztietan egoten da. Baina askotan, ez dakigu zer-nolako lana dagoen produktu horren atzean. Orain dela 10 urte, Mattinek Mandelükogia proiektua abiatu zuen. Helburua energia aurrezteaz gain, ogia modu iraunkorrean egitea da. Erreportaje honetan, urratsez urrats kontatuko dizuegu prozesu osoa, lurretik hasi eta mahai gainean izan arte.




1. Garia erein

Barkoxeko lurretan hasten da dena. Urrian gari haziak ereiten dituzte eta uztailean uzta jaso.

2. Uzta jaso

Uzta- makina batekin garia biltzen da.



3. Garia lehortu

Gariak, gutxienez, hiru egun behar ditu lehortzeko. Garrantzitsua da gari-alea ez bereiztea. Hainbat faktore hartu behar dira kontuan; besteak beste: hezetasuna, urte-sasoia...



4. Alea bereizi

Ogi-joitzeko tresna edo gari-jotzailea antzinakoa da. Bere funtzioa garia bereiztea da. Tresna horrek motorra behar du funtzionatzeko, baina energia gutxi behar du, eta horregatik, oso garrantzitsua da egitasmoarentzat; energia aurrezteaz delako helburu eta erronka nagusietako bat.

5. Garia errotan eho

Errota erabiltzen da garia ehotzeko, eta gari-irina lortzeko.



6. Galbahean bahetu

Gari-irina dugunean, zurezko kaxan sartzen da bahetze-ko. Kaxaren barruan zilindroa dago eta gari-irina erortzen den bitartean, okinak zilindroa mugitzen du biraderarekin. Gero, gari azala beste leku batean erortzen da.

7. Orantza

Pauso honetan, irina bahetu ondoren, urarekin nahasten da, ama orea, orantza, sortzeko. Prozesu horrek 6 ordu inguru irauten du.

8. Orea egin

Orain ama orea edo orantza daukagu, eta ogia egiten has gaitezke. Horretarako orantza, gari irina, gatza eta ura behar dira. Aurreko osagai guztiak nahasten mairan, hau da, orea egiteko egurrezko kutxan. Orea egin eta gero, pausatzen utzi behar da, gutxi gorabehera 3 ordu, eguraldiaren arabera. Une horretan lehen hartzidura gertatuko da.



9. Orea zatitu

Orea egin ondoren, errasketarekin zatitu egin behar da. Pisu bereko zatiak egiten saiatuko gara. Horretarako, labana eta pisua erabiliko ditugu.

10. Forma eman

Nahi dugun forma eman ahal diogu oreari. Biribilak egin daitezke, edo beste itxura batekoak; luzexkak, adibidez.

11. Ogia altxa

Forma eman eta gero, bigarren hartzidura izaten da. Ogia altxa egingo da. Baina kontuz! Begizta ezazu! Ogia gehiegi hazten bada, ogia talo bihurtuko da. Atal hau tenperatura, gari mota, orantza eta uraren arabera alda daiteke. Ogia puztu eta gero, labertzeko.



12. Labean sartzea

Labea egurrarekin dabil. Horrela, bertako energia erabiltzen duzu. Gainera, egurra prestatzea lana da, orduan, egurra aurreratu nahiko duzu. Labe-ratu baino lehen, hiru orduz labea berotu behar duzu 210 °C arte. Orain ogiaren gaineko azalean mozketak egin ditzakezu, labean sartu baino lehen, horrela, ogia hobeto harrotuko da eta. Ogiaren neurriaren arabera, labe-ko iraunaldia aldatu egin daiteke. Batez beste, 1 kg ogik ordubete inguru behar du labean.



Ogi osasuntsua eta goxoa da prozesuaren emaitza. **On egin!**



Informazio gehiago nahi izanez gero, hona jo: mandelukogia.eauchtat.org



Rafa Orellana Ormaetxea, urtebete Maizpiden



Rafak urtebete jarraian eman du Maizpiden ikasten. Horregatik, aurtengo Maizpide aldizkarian tokia irabazi duela uste dugu. Eskertzen diogu Maizpiden izandako esperientziaren berri ematea, zer nolako espektatibarekin etorri zen eta zenbateraino bete diren, zein izan diren unerik onenak eta zein txarrenak eta zer istorio bizi izan dituen.

1. Noiz hasi zinen lehen aldiz euskara ikasten eta zergatik?

Euskara ikasten 30 urte nituela hasi nintzen. Une hartan, epaitegi batean lan egiten hasi nintzen. Astean bitan joaten nintzen herrira ikastera, jadanik euskara eskatzen ari zirelako eta, horrez gain, gogoia neukalako hasteko, noski.

2. Zein asmotan etorri zinen Maizpidera?

Nik B2ko azterketa gainditzeko asmoa nuen. Beraz, pentsatu nuen hemen lau hilabetez zehar egotea nahikoa izango zela, baina ez zen horrela izan, denborarekin nahiz eta barnetegi batean azkarrago ikasi, denbora gehiago behar nuela konturatu nintzen.

3. Beste ikastetxe batzuetan ikasi duzu? Zergatik erabaki zenuen Maizpiden ikastea?

Ni orain hamar urte egon nintzen Zornotzan, eta han ateratu nuen lehenengo hizkuntz eskakizuna, baina gero utzi egin nuen, eta hamar urteren ondoren, Maizpiden hasi nintzen. Azkenean, erabaki nuen Maizpidera etortzea B2 perfila ateratzera. Memento honetan, nire bizitzan behar dut lan egiteko. Osakidetzan erizain lan egiten ari naiz eta plaza bat lortzeko behar dut B2 perfila.

4. Urtebete ikasten eman ondoren, B2 mailan zaude; C1 maila lortzeko indarrarekin ikusten duzu zeure burua, atsedetik hartu gabe?

Nire ustez, C1 gainditzea oso zaila da; B2 nahikoa da niretzat. Eta, horretaz aparte, hizkuntz eskakizuna lortu ala ez, Maizpiden lortu arte euskara ikasten jarraituko dut, horretara etorri naiz eta.

5. Zeintzuk iruditzen zaizkizu Maizpiden ikastearen abantailak?

Hemen, Maizpiden, klase asko ditugu eta gure artean euskaraz etengabe hitz egiten dugu egun osoan; hori da abantaila nagusia. Hemendik kanpo ez daukagu norekin hitz egin euskaraz, euskara ikasteko leku egokia da. Hori argi dago. Hemen, Maizpiden, klase asko daukagu, gure artean elkarrizketa etengabe egin dezakegu. Hori da abantaila, oro har. Hemen izan ezik, gehienok ez daukagu norekin euskaraz hitz egin. Hori da, nire iritziz, abantailarik handiena.

6. Maizpideko bizipenik onenetako batzuk esango zenizkiguke?

Nik uste dut hemengo bizipen onenak, Maizpiden, gutxi gorabehera denak direla. Hasteko, klaseak eman, bazkaldu, afaldu eta lo egiten dugu. Galdera hau aurrekoaren oso antzekoa da. Hemen, nahi baduzu, euskaraz bizi zaitezke etengabe. Horregatik, Maizpide barnetegia da euskaraz ikasteko lekurik onena. Ikasteaz gain, jendearekin harreman onak izatea ere badago, norbera ondo egoteko; bestela, aspergarri samarra izango litzateke.

7. Dena ez zaizu ondo irudituko. Zein bi edo hiru oroitzapen ezabatuko zenituzke Maizpideko egonalditik?

Ni une honetan ondo nago, baina uste dut konplikatu samarra dela jendearekin harreman txarrak baditugu.

Garrantzitsuak bi gauza dira: bata, politikoki zuzena izatea; bigarrena, jendearekin enpatia izatea. Nik arazoak izan ditut, batez ere, bi pertsonarekin zentro honetan, eta hori ez da ona. Hemen, burua erlaxatuta eduki behar dugu; izan ere, kezkak baditugu, ezin dugu ikasi. Hori oso garrantzitsua da, eta, gainera, arazorik gabeko bizimodua izan behar dugu, hau da, dirua izan behar dugu, gure etxean dena zuzen eta osasuntsu, esaten den bezala; filosofia humanista behar dugu: multzo bat da lana, osasuna, familia; laburbilduz, burua oso sendo eta hemen zentratuta izatea.

8. Bukatzeko, aurten Maizpideko egonaldia 1etik 5era puntuatzera animatuko zinateke? Azpimarratu nahiko zenukeen zerbait.

Une honetan oso ondo nago, baina azpimarratuko nuke egun batzuetan denbora dezente egiten dugula lan klasean ikasteko. Adibide bat, sei ordu eta erdi klasean. Nik jarriko nuke ordu erdi gehiago, 7 ordu. Baina idazlana eta etxeko lanak klaseak bukatu eta gero eginaraztea gaizki iruditzen zait. Niretzat neuretzat gehiegizkoa da. Gauza garrantzitsu bat da astero idazlana egin behar dugula, baina klasean! Eta baita elkarrizketak ere! Mintzamina ere egiten dugu. Gramatika asko egiten dugu klasean, gramatika gure eskuetan daukagu; adibidez, liburu batean. Horregatik, material asko daukagu gramatika ikasteko, nahi badugu. Etortzen garen ikasleok hizkuntz eskakizunak gainditu behar ditugu; hori dela eta, gure jomuga azterketa gainditzea da. Hemen gramatika asko egiten dugu, baina, agian, idazlanak edo elkarrizketak hobeto klasean egitea; bestela, zaila iruditzen zaigu geure kabuz klasea bukatu ondoren egitea.



Sor Maria Luisarekin hizketan

Lazkaoko zistertarren komentua gertutik

Lehenengo eta behin mila esker gurekin elkartzeagatik eta komentuko ohiturak gertutik ezagutzeko aukera emateagatik.



Zenbat zarete zuen komentuan?

Hamabi moja gara, gehienak gipuzkoarrak, bi izan ezik, bi horiek mexikarrak dira. Gazteenak hogeitaz urte ditu eta zaharrenak laurogeita hamahiru.

Nolakoa da zuen egunerokoa?

Goizeko zazpitan esnatzen gara eta otoitz egiten dugu. Zortzi eta erdietan gosaltzen dugu; ondoren, aisialdia izaten dugu eta logelara joaten gara otoitz egitera. Bazkaldu baino lehen mezatara joaten gara guztiok elkarrekin eta hamabietan gaixorik daudenei janaria eramaten diegu. Hauek zaintzen ditugu eta astean behin Lazkaoko lehen arretako erizain bat inguratzen da komentura. Besteok ordu batean bazkaltzen dugu. Bazkaldu ondoren logelara abiatzen gara eta bertan atseden hartzen dugu. Bazkalorduan eta afalorduan, zin egiten dizuet, edalontzi bat ardo edaten dugu.

Egunero izaten dugu Meza arratsaldeko seietan eta zuek ere gonbidatuta zaudete. Zazpiak laurden gutxitan otoitz egiten dugu elkarrekin eta eta zazpi eta erdietan afaltzen dugu. Zortzi eta erdietarako logelan izaten gara. Lan mota ezberdinak egiten ditugu komentuan. Otoitz egiteaz gain, liburuak enkoadernatzen ditugu, baratzea zaintzen dugu, ospakizun bereziak prestatzen ditugu. Lan ederra dugu.

Bibliarik irakurtzen al duzue?

Bai, egunero, batez ere, salmoak. Gonbidatzen zaituztet Biblia irakurtzera.

Zer ikasi zenuen?

Gure etxean anaia-arreba asko ginen eta ezin izan nuen ikasi, senideak zaintzea tokatu zitzaidan.

Nola ikusten duzu elizaren etorkizuna?

Jaungoikoaren eskutan utziko dut. Jainkoak nahi duena izan dadila. Egia da, gaur egun, jendeak oso bokazio gutxi daukala.

Nola ikusten duzu gure egunerokoa?

Zuek beste gauza batzuetan pentsatzen duzue. Teknologia ez dugu erabiltzen eta mugikorrak ere apenas.

Zein adin zenuen sartu zinenean?

Hogeitaz urte nituela sartu nintzen eta arraina uretan bezala sentitzen nintzen. Hil arte hemen geratuko naiz, hau da, Jainkoak eraman arte, beldurrik gabe.

Zer harreman duzue Maizpideko jendearekin?

Maizpideko ikasleak gomendioak jasotzera etortzen dira eta erretiro espiritualak ere egiten dute askok.

Mila esker, sor Maria Luisa.

Aizpea Garmendia

Bertsolaritzaren lainoan murgildurik



Aizpea Garmendia lazkaotarrak (1998) txikitatik izan ditu gustuko bertsoak. Umetan hasi zuen bertsolaritzarako bidaian jarraitzen du oraindik ere, nahiz eta kantatzeari aspalditxo utzi zion. Gaur egun, irakasle lanarekin uztartzen du gai-jartzailearena. Garmendiaren ibilbidea hobeto ezagutzeko gonbidatu dugu Maizpidera.

1- Nondik datorkizu bertsoetarako zaletasuna?

Ez daukat oso garbi. Badut txikitako irudi bat, udako oporretan, ama bertsoak edo koplak osatzeko ariketa jartzen, jolas moduan. Garai hartan, gainera, Lazkao Txikiren marrazkiak ematen zituzten telebistan. Eta ez dakit nire zaletasuna ikusita marrazkietatik hartzen zituen ideiak edo bestela izan zen. Gainera, aitona Joxe Migelen laguna omen zen, eta ez zen isilik egongo, seguru. Etxean ez da inor aritu bertsotan, baina beti izan dugu inguruan bertsolaritzaren laino hori.

2- Non eta noiz hasi zinen bertsotan?

Nik, berez, bertsolari-bertsolaritzat ez dut neure burua izan, oso umetan hasi, eta ez nintzelako plaza garrantzitsuetan aritu; batez ere, eskolarteko txapelketetan hartu nuen parte. Hamar urterekin-edo ikastolan bertsolaritza lantzen hastearekin batera, Lazkaoko bertso-eskolan eman nuen izena. Gero, Ordiziakora joan nintzen Goierri mailan aritzeko. Arrasaten unibertsitatean hastean utzi nion bertsoak sortzeari, han ez bainuen aukerarik lantzen jarraitzeko. Bai, nahi gabe bezala, berez, ez ari-tzeagatik.

3- Zer hartu behar da kontuan bertso bat egiteko?

Gauza asko: neurriak (zortziko handia eta txikia; hamar-reko handia eta txikia) eta errima. Bertsolariek asko lantzen dituzte errimak. Batzuek errima estuagoa hartzen dute. Esate baterako, batek errima bezala -era hartzen badu, eta beste batek -bera, bigarrenak mugatuago izango du hitzak bilatzea. Hau da, zenbat eta hizki gehiago sartu erriman, orduan eta zailagoa errima topatzea.



4- Neurriak eta doinuak. Nola aukeratu zein doinu eta neurritan bota bertsoa?

Aukeraketa librea da. Txapelketetan, adibidez, saioa hasi aurretik adosten dute askotan zer doinutan jardun. Doinu asko daude eta denak erregistratuta daude Bertsolaritzaren datu-basean (BDB). Doinu bakoitza lehenengoz noiz, non eta nork kantatu duen azaltzen da bertan, baita izena ere. Doinuaren izena bertsoaren lehenengo lerroa izaten da, nahiz eta batzuetan, asma-tzailearen izenez identifikatzen duten.

5- Beharrezkoa al da ondo abestea?

Berez, ez, baina lagundu egiten du. Badaude oso ondo kantatu ez, eta txapelak irabazi dituztenak. Batzuetan gertatzen da ondo abestu ez, eta mezua potenteagoa izan beharra entzulearengana iristeko. Badakit badaudela batzuk berariaz ahotsa lantzen dutenak.

6- Nolaosatzen da bertsoa?

Teorian, bertsoa bukaeratik hasi behar da pentsatzen, azkeneko puntutik, alegia; izan ere, amaieran ematen da mezu garrantzitsuen, eta entzuleak horrekin gertatzen dira. Hori zehaztuta, errimak sortu eta gainontze-koaosatzen da.

7- Gaur egun, gai-jartzaile zabilta. Zein da zuen egitekoa?

Hitzak dioen bezala, gaiak jartzea da. Saioak aurkeztea beste lan bat da, gai-jartzaile lanaren barruan dagoe-na. Hasiera batean, edozein gai jar daiteke; dena dela, gaurkotasuneko gaiak izaten dira batez ere. Txapelketetarako edota bestelako saioetarako gaiak pentsatzen ditugu. Ariketa desberdinak daude, adibidez, kantatu beharreko egoerak ematen ditugu, baita zer abiapuntu defendatu behar duten ere. Beste ariketa bat da puntu bat guk kantatuta ematea, bertsolariak amai dezan. Txapelketetan, egunean bertan egiten da gai bakoitza nori tokatuko zaion jakiteko zozketa; plazan, ordea, ez da hain zorrotza izaten. Eta gaiak asmatzea norberaren irizpideak jarraituz egiten dugu, egiten dut nik behintzat. Bertsolaria nor den dakidanean eta inguruko berri izatean zehazten ditut gaiak.

8- Azkeneko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan aritu zara gai-jartzaile lanetan. Nolako taldea osatu duzue? Nola sortzen dituzue bertso txapelketetarako gaiak?

15 pertsonako talde plurala osatzen dugu gai-jartzaileok. Lehenengo, Driven dugun zakuan ideiak botatzen ditugu. Gero, asteburuan biltzen gara lehen filtroa egiteko. Hor, gaiak banan-banan irakurtzen ditugu denon artean aztertu eta baztertzen joateko. Hurrengo bileran, geratu diren gaiak saio ezberdinetan kokatzen ditugu. Saioa egin baino lehen izaten da azken bilera, azken iragazkia egiteko. Izan ere, gai batzuk ezin dira jarri duten zailtasunagatik edota egonezina sor lezaketelako bertsolariarengan nahiz entzuleengan. Gogoratzen naiz, adibidez, aurtengo saio baterako, gai batek ingelesezko esaera bat zuela, bada, taldekide batzuek ezagutzen ez zutenez, aldatu egin behar izan genuen. Bestalde, jartzen dizkiegun roletan orekari eusten ere saiatzen gara. Horretarako, taula batean, ariketak, rolak eta bertsolarien izenak idazten ditugu informazio guztia hobeto ikusteko; eta saihesteko, esaterako, bertsolari berari hiru aldiz ume papera tokatzea. Baina izan liteke gazte batek jubilatuta baten rola defendatu beharra izatea eta alderantziz. Hala ere, gai batzuk kendu egiten ditugu, ezberdin ulertu baitaitezke, kantatzen duena emakumezkoa ala gizonezkoa den.

9- Ba al duzu erreferenterik? Zeintzuk dira?

Egia esan, inoiz ez naiz izan oso erreferente zalea, baina gai-jartzaile erreferente bezala esango nuke Saroi Jauregi izan daitekeela bat, zeregin honetan, gure inguruko lehenengo emakumeetakoa izan delako eta, emakume eredu gisa, izen garrantzitsu bat delako. Nahiz eta, gero, talde berean topo egitean konturatzen zaren, pertsona normala dela, beste bat dela taldean. Beste bat aipatzekotan, erreferente bezala ez dakit, baina nire ibilbidean garrantzitsua izan dena, gertutik ezagutu dudana eta bertso-eskolan irakasle izan nuen: Amaia Agirre. Inaxio Usarralde bera ere oso gertu-koa da, kuadrillako baten aita. Nik Inaxio txiki-txikitatik ezagutu dut.

10- Gustura sentitzen zara gai-jartzaile lanean?

Oraingo, bai. Egia da oso ezberdina dela txapelketan edo plazan aritzea. Txapelketan, 15 pertsonak adostuta-ko gaiak idatzita eramaten dituzu orri batean. Irakurri baino ez duzu egin behar, eta, neurri batean, ez dago ardura zugar; hau da, aurkezlearengan. Izan ere, azkenean, irakurri duzuna ez duzu zuk zehaztu, talde oso batek baizik. Jendeak pentsatzen du gai-emaileak jarri dituela, baina taldearen erabakia da. Beraz, kritikak daudenean, taldeari egindako kritikatzat hartzen duzu, eta ez hainbeste zuri egindakotzat. Hala ere, egia da, txapelketan faseek aurrera egin ahala, nik ere sentitu nuela ez zela gauza bera. Hasierako saioetan, gaia jartzea eta aurkeztea lasaia goa zen; bukaeran, berriz, presioa handiagoa zen. Alde batetik, ikus-entzule gehiago joaten zelako eta aurkeztutako gaia lupa batekin begiratzen zutelako; eta, bestetik, eragin handiagoa izan genezakeelako bertsolariengan. Adibidez, azkena aurkeztu nuen saioan Beñat Gaztelumendi zegoen eta inpresioa egin zidan bi arrazoi hauengatik: bitan Gipuzkoako Txapelduna izan delako eta banekielako txapelketan lehenengo postuaren bila zihoala.

11- Bertsolariak asko mugitzen dira eskualde batetik bestera. Gai-jartzaileok ere batetik bestera mugitzen zarete?

Normalena da eskualdean eskualdekoak aritzea. Gipuzkoako Txapelketan, adibidez, bertakoak ibili gara, ez da Euskal Herriko beste probintzia batzuetatik inor etorri. Euskal Herriko Txapelketan, berriz, lurralde bakoitzeko gai-jartzaile taldeetako hainbat ordezkari osatzen dute taldea. Nik, oraindik, ez dut beste lurralde batzuetakoekin lan egin.

12- Gai-jartzaile izateko nork aukeratzen zaituzte?

Nire kasuan, Lazkaon, Inaxiok eta Joxepak proposatuta eta lagunduta, estreinako saioa aurkezteko aukera izan nuen. Ondoren, bertso munduko lagun bati nire ize-na burutik pasatu eta pandemia garaian gazteen bertso saio bat aurkezteko proposamena jaso nuen bertsozale elkartetik. Gazteena bertso zirkuitua zenez, gaiak jartzen ere gazteok aritzea zen asmoa. Horretarako, formakuntza txiki bat eman ziguten, laguntzeko. Hurrengo urtean,

berriro taldetxo horretako kideei Eskolartekorako gaiak jartzeko proposamena iritsi zitzaigun, eta proposamen batetik bestera iritsi nintzen Gipuzkoako Txapelketara.

13- Bertsolaritzak zer bilakaera izan du azken hamarkadetan? Askok aldatu al da?

Askok aldatu da, bai. Bertsolarien ezaugarriei begiratuta, adibidez, emakumeen presentzia nabarmen handitu da. Ez bakarrik emakumezkoena, gizonezkoa izanda ere, gizon izateko hainbat eredu agertu dira. Zenbait profil ari dira ateratzen. Bertsolarien profila askok aldatu da eta horrek ere gaiei beste alde batetik heltzea, gaitegia aldatzea eskatzen digu. Saio bat prestatzean, kontuan hartu behar izaten da zein herritan den, kalean edo areto batean den, zein entzule mota egongo den... Horren arabera giroa eta entzuleak desberdinak izan daitezke eta horrek ere gaiak egokitzea dakar. Ez da gauza bera elkarte bateko bertso-afari estandar baterako gaiak jartzea edo bertso-saio feminista musikatu baterako jartzea adibidez. Bertsotarako formatua ere aldatzen ari da. Lehen, askotan, bertso-afariak egiten ziren; orain, ordea, bertso-saio musikatuak, bertso-saio literarioak, bertso-tramak, kirolarekin lotutakoak...

14- Elkarrizketa bukatu baino lehen, Aizpea, gustura entzungo genuke zure bertso bat. Horretarako, haxe duzu gaia: Maizpide eta euskara.

Bertsoek eta euskaltegiek
beti euskara hizpide,
hizkuntza bera maitatze horrek
bihurtzen gaitu gu kide.
Abiapuntu desberdinetik
iristeko zenbat bide...
elkarbanatuz ikasteko da
denon etxea, Maizpide.



Hiru alkateei elkarrizketa

GOIERRIKO HERRI TXIKIAK: gaurko egoera eta etorkizuneko erronkak

Goierriko hiru herri txikitako alkateengana joan gara, hemengo inguruak ikustera, eta herri horien egoera nahiz etorkizuneko erronkak ezagutzera. Oso gustura egon gara haiekin elkarrizketan. Lerro hauetatik eskerrak eman nahi dizkiegu alkate horiei guztiei gurekin hartutako lanarengatik eta egin diguten harrera onarengatik.

Hona hemen hiru alkateei egindako galdetegia:

1.
Nola aurkeztuko zenuke herria bizpahiru esalditan?

2.
Zein izan daitezke herri txiki batean bizitzearen zailtasunak edo oztopoak? Eta zein abantaila zenituzke?

3.
Zein de gazteen egoera? Ba al dute bertan bizitzeko aukerarik? Nola egiten duzue jende gaztea bertan gera dadin?

4.
Herri handiekin alderatuta, jakina da zerbitzu eta jarduera gutxiago dauzkazuela. Zerbaiten hutsunea nabaritzen duzue? Nola moldatzen zarete?

5.
Botereari dagokionez, herri txikiak erabakitzeke eskumena galtzen edo irabazten ari direla esango zenuke?

6.
Baduzue eskualde mailan zerbitzu bateraturik edo halakorik sortzeko asmorik?

7.
Nola ikusten duzu euskararen egoera eta etorkizuna zure herrian?

8.
Zeintzuk esango zenuke direla zuen herriaren erronkarik handienak?



- **Izena:**
Endika Igartzabal Murua
- **Jaiotze-data eta sorterrria:**
1991, Gabiriako baserri batean jaioa
- **Lanbidea:**
Ingeniaria, Olaberriko lantegi batean
- **Hautagaitza:**
Gabiria Hautesle Elkarte
- **Noiztik alkate:**
2023tik (zinegotzi hasi zen udaletxean 2015ean)

GABIRIA

1. Gabiria herri txikia da, 500 biztanle ingurukoa; eta, oro har, esango nuke herri gaztea eta aktiboa dela, gazte dezente baitago. Lan aldetik esango nuke jende gehienak Goierriko industrian lan egiten duela. Naturaren erdi-erdian dagoen herria da, bista zoragarriekin: Aizkorri, Aralar eta Goierriko herri askotara. Naturekin harreman handia daukan herria dela esango nuke alde horretatik. Hala ere, oso jende gutxi bizi da naturatik bakarrik. Gabiriako baserriek animaliak, baratzak dauzkate, alegia, lehen sektoreko aktibitatea badago... baina horretatik bizi ez, Baztarrika (Idiazabal gaztagintza) izan ezik.
2. Alde batetik, guretzat ia-ia ez da oztoporik, baina, esatekotan, esango nuke komunikazioa, autoa behar dugu eta; izan ere, autobus zerbitzua izan arren, oso pobrea da. Gainera, nik uste dut herri txikietan bizi garenoi kosta egiten zaigula zerbitzu hori erabiltzea. Bestetik, nire ustez, abantaila batzuk badira: natura, ingurumena, lurrarekin konexioa, bakea, lasaitasuna...
3. Bai, gutxi, baina badaude. Kontua da ez datozela bat gaur egungo gazteen errealitatearekin. Badaude etxeak 400.000 eurotan saltzen direnak edo baserri zaharrak 300.000 eurotan, eta gazteek ezin dute ordaindu. Horregatik, uste dut arazo larriena herri txiki hauetan hor dagoela, etxebizitzan.

Hala ere, Udaletxetik zerbait egin dugu, adibidez: duela bost urte, baserri bat salgai jarri zuten eta lurrak eraikigarriak ziren, etxeak egin zitezkeen. Orduan, udalak egin zuena izan zen lur horiek erosi eta programa martxan jarri, lau etxebizitza eraikitzeko herriko lau gazterentzat.

Bestalde, gazteak Bilbora, Donostiara edo Gasteizera joaten dira ikastera, eta emantzipazioa atzeratu egiten da. Herrigunean ez dago alokairurako aukerarik, orduan, orain udaletxeko goiko pisuan etxebizitza jartzen ari gara. Larrialdietarako etxebizitza bat izango litzateke, aterpea emateko. Gainera, Gabiriako lurraldean badaude 48 baserri huts, eta Eusko Jaurlaritzaren arabera, baserri bakoitza bitan zatitu daiteke, Lurzoruaren Legeagatik. Udaletik hori aldatu nahi dugu, baina lege ezin da, oso mugatuta baitago.

4. Adibidez, autobusa orduero Ormaiztegira bakarrik daukagu; beraz, beste herri batera joan nahi badugu (Zumarragara, Urretxura, Legazpira...) zera egin behar dugu: han jaitsi eta beste autobus bati itxoin. Hala ere, autoz joaten bagara, 15 minututan gaude, eta autobusez 40 minutu behar.
- Medikua astean hiru egunetan egoten da, 2-3 ordu goizean. Herrian ez dago denda fisikorik, okindegi-rik ere ez. Okinak, beraz, banaketa egiten du etxetik. Fruta saltzailea ostegun arratsaldean etortzen da. Herritar batek arraindegia du Beasainen eta be-



rak ere banaketa egiten du arratsaldean. Horri esker, gertuko gutxieneko zerbitzuak baditugu. Bestela, herritik kanpo lan egiten dugunez, lanetik bueltakoan egiten ditugu erosketak.

5. Aspaldi galdu dugula esango nuke. Legeak hiri handiei begira egin dira, eta ez herri txikien beharretara. Esate baterako, orain dela zortzi urte, zabortege bat zen Gabiriako mugan, Mutiloako lurretan. Donostiako zaborra ekartzen zuten. Nahiz eta mobilizazioak izan, ezin genuen ezer egin horren kontra. Gauza bera AHTrekin. Ezkion (Gabiriaren ondoan), lotura egiteko tren geltoki bat eraikiko da eta, gure desadostasuna erakutsi dugun arren, hori gelditzea ez dago gure esku.
6. (Ikus 4. galderaren erantzuna)
7. Gabiria UEMAko herria da (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea). UEMAn izateko baldintza batzuk bete behar ditugu, besteak beste: euskararen erabileria handia izatea, udalaren funtzionamendua euskaraz izatea (bilerak, udalaren komunikazioa...).

Hala ere, nabarmena da azken urteotan, egoera oso azkar aldatzen ari dela. Lehen, adibidez, modu naturalean hitz egiten genuen euskaraz, kontzientziarik gabe, inertziaz. Ez zuen zentzurik gure artean erdaraz hitz egiteak, baina gaur egun, tamalez, hori gertatzen ari da. Orain, euskalduntasunari eusteko kontzientziaz hitz egin beharko dugu.

8. Mahai gainean hiru erronka daude: lehena, eta handiena, **euskara** izango da (adibidez, gure eskolan euskarari lehentasuna ematea); bigarrena, **etxebizitza**; eta, azkenik, **zaintza**, hau da, adinekoei laguntzeko ekimenak sortzea (erositako baserriarekin, komunitateko bizimodua sortu nahi duten adinekoentzat...).



- **Izena:**
Martín Aramendi Arana
- **Jaiotze-data eta sorterrria:**
1970, Ataun
- **Lanbidea:**
Euskara Irakaslea
- **Hautagaitza:**
EH Bildu
- **Noiztik alkate:**
2019tik

ATAUN

1. Ataun biztanleei dagokionez herri txikia da, 1700 biztanle ditu, baina hedaduraz nahiko herri handia da (58,73 km.). Biztanleak auzoetan sakabanatuta daude, nagusiak San Martín, San Gregorio eta Aia.
2. Oztopoak, batez ere, oinarritzko zerbitzuei begira dira; izan ere, mediku eta pediatra gutxi daukagu. Garraio zerbitzua nahiko ona da, baina goi auzoan bizi direnek esaten dute autobus gutxi dituztela. Eta abantailak: beste herri handiagoetan baino lasaigo bizi gara, ez daukagu zarata handirik, fabrikarik, trafikoa gutxi, naturatik hurbil gaude eta harremak ere hurbilagoak dira. Balantza batean alde onak eta txarrak jartzen baditugu, onak gehiago direla esango nuke.
3. Gazteak herrian geratzea da gure proiektu garrantzitsuenetako bat. Ataunen 900 etxebizitza daude, horietatik 300 hutsik, eta horiek alokairura ateratzeko lanean ari gara. Alokairua errazteko hainbat bide aztertzen ari gara, hala nola, jabeen aholkularitza ematea eta diru-sarrerak eta etxebizitzaren kontserbazioa bermatzeko Eusko Jaurlaritzaren programetan oinarritzea.
4. Aipatu dudan bezala, medikua, pediatra eta garraioa bezalako zerbitzuetarako sarbidea gure kezketako bat da. Denden etorkizunak ere kezkatzen gaitu, dendarari asko erretiroa hartzeko zorian daudelako eta ez dakigulako erreleborik egongo den. Gainera, zenbait auzotan garraioa ez da egokia, eta oraindik sei baserri zuntz-konexiorik gabe daude; nahiz eta proiektu horiek onartuta egon, oraindik ez dira iritsi...
5. Herriek eskumen batzuk ditugu, obra-baimenak adibidez, baina obra handia bada edo etxea errepidearen ondoan badago, Aldundiaren esku dago. Gero eta burokrasia gehiago dago, eta izapideak gero eta konplexuagoak dira; horrek kudeaketa zailtzen du, baina ez dakit, era berean, boterea galtzen ari garela esan nahi duen...
6. "Goieki" garapen agentziarekin lan egiten dugu energia bulego bat sortzeko. Edozein herritar joan daiteke laguntza jasotzera. Etorkizunean, horrelako beste proiektu batzuk sortzeko asmoa daukagu, zaintza edo gizarte zerbitzuen arloetan, esaterako.

Ideia litzateke guk bakarrik eskaini ezin ditugun zerbitzuak, Goierri denon artean ematea.
7. Kezkaz! Ataun nahiko herri euskalduna da, arnasgunea da, euskararen erabilera % 80koa da; hala ere, azken aldian atzera doala ikusten da. Alde batetik, aisialdian, telesailetan eta sare sozialetan, gehienez...



tan erdaraz hitz egiten dute. Bestetik, etorri berri asko daude eta haintzat besteentzat baino zailagoa da euskaraz ikastea; hemen ditugun euskalduntzeko baliabideak ez dira nahikoak, eraginkorrakoak izan behar dugu. Orduan, kezkaz ikusten dugu, bai, baina gure erronka da eta guk saiatu behar dugu euskalduntzeari eusten gure herrian. Atzerakada hori geldiaraztea gure lana da.

8. • Etorri berrien integrazioa, baita euskara ere.
- Gazteei bertan bizitzeko aukera ematea: edo etxe eraikin berrietan, edo hutsik diren alokairuetan.
- Jende zaharren bizi kalitatea hobetzea: heldu asko bakarrik bizi dira eta; inkesta bat egin dugu, bakardadean bizi diren pertsonak detektatzeko eta laguntzeko.
- Badugu beste proiektu bat garrantzitsua dena. Ur asko dugu Ataunen eta ezin dugu erabili, eguraldi txarra denean zikindu egiten baita. Interesgarria litzateke gure ura baliatzea, baina finantzazioa falta zaigu.



- **Izena:**
Jon Gorrotxategi Gorrotxategi
- **Jaiotze-data eta sorterrria:**
1964, Beasain
- **Lanbidea:**
Psikologian lizentziaduna
- **Hautagaitza:**
Gaintzako Herria
- **Noiztik alkate:**
2023tik

GAINTZA

1. Gaintza Gipuzkoako bigarren herri txikiena da, eta Goierriko txikiena. Egun 124-126 biztanle inguru ditu eta azken 30 urteotan biztanle kopuruari eusten ari da. Hala ere, biziraupen borroka batean gaude herriari eusteko. Hala ere, populazioa ez da beste herri txiki batzuetan bezain desorekatua. Izan ere, gazteak (30 urte baino gutxiago) % 30 bat dira. Ez dago inongo aktibitate produktiborik hemen bertan, baina ez dago langabeziarik.
2. Herri kohesio, nortasun edo harrotasun hori ez dago, adin tarte guztietan. Haurrak jaiotzen direnetik kanpora joan behar izaten dute haurtzaindegira eta ikastetxera, eta, non eskolaratzen diren, han sortzen dira haien kuadrillak. Gainera, ez dago elkartzeko gunerik. Bestalde, adineko jendea desagertu ahala, jende berria ez da etortzen eta bertako jendea joan egiten da. Abantaila asko daude: lasaitasuna, natura eta beste bizi-erritmo bat. Hamar minututan sartzen gara Ordizian edo Beasainen eta hori dastatzea ondo dago, baina, nolako gozamena etxera bultatzea!
3. Gazteek gelditu nahi dute, baina ez edozein baldintzatan. Adibidez, ez dute Gaintzan pisu batean gelditu nahi, beste leku batera joatea baitaukate (Ordizia, Beasain) eta lurrarekin harremanetan bizi nahi dute. Hala ere, etxebizitza mota horretan bizi ahal izateko hemen ere diru asko behar da eta herri kohesio faltak eta etxebizitza eskaintza faltak eragozten dute egoera.
4. Haur eskolarik ez daukagu, ez dago dendarik, jatetxe edo taberna bat justu-justu... Esan nahi dut oinarriko zerbitzuak kotxea hartu eta hamar minutura ditugula! Gure burua ez dugu engainatuko: orain denda bat hemen ezarri eta gero zer saldu behar dugu hemen? Errentagarria litzateke hor lan egingo duenarentzat? Gu hortik ez gara hasi. Oso-oso oinarriko



gauzeekin gaude, ezta? Lehen esaten genuena: lurra, hezkuntza aldetik poliki-poliki hasteko asmoa daukagu. Ea posible den txiki-txikiak hemen gelditzea. Pixkanaka hasi, sozializazioa, elkar ezagutza, elkarrekiko sentimendua lantzen, hori ez da txasta batean egiten, hau ziklo luzea da, hau elefante handi bat da.

5. Boterea galdu? Lan pixka bat eginda hartzen diren erabakiek sekulako lasaitasuna ematen dute. Erabaki garrantzitsuak direnean, eta konpromiso ekonomiko handia dagoenean parte hartze-prozesuak egiten ditugu; besteak beste: urteko aurrekontuak, eraikin bat erostea, oinezko bide konponketak... Jendeak asko eskertzen du erabakiak hartzea.
6. Goierrin badaude eskualde mailako hainbat erakunde. GOIEKI, adibidez, garapen agentzia da eta herri guztiok parte hartzen dugu, eta Sasieta, hondakinen kudeaketa egiteko. Askotan proposatzen diren gauzak ez dira guretzat, gutxienekotara ez garelako iristen, baina ondo dago han egotea. Babes handia da guretzat; zabor hondakinen kasuan, esate baterako, ez gara gai tratamendua bakarrik egiteko. Orain, gainera, landa garapenerako eremu txikietarako, lerro bat irekitzen ari dira, eta sei herri elkartu gara.
7. Hemen euskaraz bizi gara garbi, baina herri txikie-

tan kanpotar (erdaldun) kopuru oso txikiak egoera aldarazi dezake. Zer prozesu egin behar da etortzen direnekin hori ez gertatzeko? Azterketak? Bizitzera etorri diren azkenek esan zuten inoiz baino gehiago gaztelaniaz egiten ari direla. Horretarako, UEMAn (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) sartuta gaude. Haiek beste herri batzuetako esperientziak dauzkate, eta ikerketa soziologikoak egin dituzte. Orientazioa eman ez hizkuntza babesten laguntzen digute. Adi egon behar da.

8. Etxebizitza bueltatzea, sozializazioa indartzea eta aktibitate ekonomikoak bilatzea guretzat erronkarik handienak dira. Etxebizitza bai gazteentzat, bai orokorrean. Sozializazioaren ikuspuntutik, lehen esan dudana bezala, kohesioa eta herri nortasuna landu behar ditugu. Zehazki, aktibitate ekonomikorako erosi dugu eraikina, eta ostatua, aterpea... egiteko aukera izango dugu. Lehen sektorean ere nahiko gehi-
nuke aktibitate ekonomikoak izatea.

Erronka hauek argi dauzkagu, eta, poli-poliki, gure maila apalean, baina ari gara bidea egiten.

ATZERRITARRAK MAIZPIDEN

Munduko hainbat tokitako jendea ibili izan da Maizpiden euskara ikasten. Orain, besteak beste, Senegalgo, Mexikoko, Galesko eta Japoniako ikasleak ditugu gure artean. Horietako batzuekin aritu gara hizketan. Hona hemen haiekin izandako elkarrizketaren nondik norakoak.

galderak

ZERGATIK ETORRI ZARA EUSKAL HERRIRA?

ZERGATIK ARI ZARA EUSKARA IKASTEN?

ZERGATIK AUKERATU DUZU MAIZPIDE EUSKARA IKASTEKO ETA ZENBAT DENBORA DARAMAZU BERTAN?

GOGORRA IZATEN AL DA EUSKARA IKASTEA?

ZEIN IZAN DA NABARI IZAN DUZUN ALDAKETARIK GOGORRENA?

ERREPIKATUKO ZENUKE ESPERIENTZIA?

Beste arlo batzuetan gertatzen ari den bezala, euskararenean ere globalizazioa nabaritzen da. Gaur egun, ez da arraroa Euskal Herritik kanpo etorritako pertsonen gure hizkuntza ikastea. Egia esateko, euskaltegi guztiek daukate atzerritarren bat beren bezeroen artean, baina inoiz ez diogu kasurik egin. Beraiekin ikasi dugu ezer galde-tu gabe, eta euren bizitzari buruz gutxi jakinda. Maizpideren egoera ez da bestelakoa. Azken bo-lada honetan, ikasle kanpotarren kopurua gero eta handiagoa da, eta ohituta ez gaudenoi zer pentsatua ematen digu.

Haien pentsamenduetara hurbiltzeko eta beraien egoera apur bat ulertu nahian, Maizpiden dauden atzerritarren artean inkesta egin dugu. Horretan, hemen egoteko zergatiak, izandako arazoak eta Maizpideko egonaldiaren inguruko iritzia jakin nahi izan ditugu.

ZERGATIK EUSKAL HERRIA?

Aurretik pentsa genezakeenez, hainbat arrazoi aurkitu ditugu. Gizarteak historikoki pentsatzen du atzerritarrak bizitza on baten bila etorri di-rela, hau da, euren herrialdea utzita lan hobe-a aurkitzera; eta horrekin batera, dirua irabaztera, beren herrira bidaltzeko. Bada, kasu batzuentzat horrela izan da, baina inkesten artean, amodioa, familia bilatzea eta hizkuntzarekiko harremana aurkitzea ere izan dira gure herrira etortzearen arrazoiak. Katherynen (Gales, 52 urte) esanetan, 'Duela urte batzuk Galesen bizi nintzen, baina be-titik bizi nahi izan dut Euskal Herrian, kultura eta hizkuntzagatik; betidanik interesatu izan zaizkit hizkuntza gutxituak'. Lalo (Mexiko, 34 urte), be-rriz, amodioak ekarri zuen gure herrialdera; 'Due-la zazpi urte ezagutu nuen Mexikon gaur egungo bikotekidea, eta horrexegatik etorri nintzen'. Na-tura, lana eta familia ere izan dira jasotako beste argudio batzuk.



Bestalde, gauza bat da hona etortzea, eta beste bat hemengo hizkuntza ikastea. Horri buruz gure elkarrizketatzaileek bat egiten dute: hemengo biztanleekiko harremanak indartzeko edo errazteko euskara ikastea erabaki zuten. Berehala konturatu dira euskara ikastea ez dela ahuntzaren gauerdiko eztula. Morek (Senegal, 24 urte) esaten duen bezala: 'Lazkaoko taberna batean lan egin nahi dut eta hemen euskara ezinbestekoa da, lantzen ari naiz, baina oso zaila da'.

ZERGATIK MAIZPIDE?

Maizpidek urte asko darama helduak alfabetatzen Lazkaon, eta, urteak pasatu ahala, lan gogor hori nabari izaten da Euskal Herri osoan. Gurekin izan diren ia gehienek esan dute euren lagunek edo ezagunek hemen ikasi zutelako eta hona etortzeko gomendioa egin zietelako etorri direla. Ikasteko modurik azkarrena izateagatik, hain zuzen ere. Ryotarok honelaxe dio: ('Ibai' Japonia, 29 urte) 'Kasualitatea izan da, Takanorik (Japonia, 48 urte) eta biok neska bat ezagutu genuen Japonian. Neska horrek Maizpiden ikasi zuen eta Lazkaora etortzeko nola egin erakutsi zigun'.

Bukatzeko, giroa, irakasleak eta jendea aparteak direla aipatzen dute, 'denek helburu bera daukate eta, arazoak arazo, nabarmentzen dute asko ikasi dutela; eta, asko kostatu arren, denek esperientzia errepikatu egingo luketela.

ERRE-FEREN-TZIAK

Atal honetan, hainbat erreferentzia eskainiko dizkizuegu, hain zuzen ere, webgune batzuk beren xehetasunekin. Euskal Herrian, beste leku batzuetan bezalaxe, literatura erotikoa dezente kontsumitzen da. Lehena, Literotura sailekoa dugu eta Txalaparta.eus web-orrian topa dezakegu. Hemen aurki ditzakegun liburuak erotikaren ingurukoak dira. Argitaletxe hori duela hogeitau urte hasi zen liburuak itzultzen eta gaur egun ere lanean dihardu. Pixkanaka-pixkanaka joan dira muturra sartzen eta beraien liburu propioak ere badituzte. Adibidez, hemen duzue "Esku bakarrekin irakurtzeko kontuak".

Esku bakarrarekin irakurtzeko kontuak

Gustatuko litzauguke azpimarratzea euskarazko lehen liburu inprimatutik nabarmena dela erotismoaren presentzia: Bernat Etxepareren "Emazten fabore"n erreferentzia zuzenak ageri dira.

<https://www.txalaparta.eus/es/libros/esku-bakarrarekin-irakurtzeko-kontuak>

Gosex


Bideoei erreparatuz, Gosex dugu esku artean, baina zer da Gosex? sexuaren inguruko bideo-podcastak dira, eta atal bakoitzean gai baten gainean dihardute. Adibidez, lantzen dituzten gaiak honako hauek dira: harremanei eta sare sozialei buruzkoak, pornoaz... Gosex Gaztezulo aldizkarian lortu dezakegu. Bertan daude beraien bideo-podcast guztiak. Gutxi gorabehera hilero argitaratzen dute berriren bat afera honen inguruan. Hilabete honetan beren 2. atala eskaini digute, aipatu dugun bezala, harremanei eta sare sozialei buruzkoa. Guztiz gomendagarria! Bide batez, hementxe duzue azkeneko argitalpena:

Era berean, umorezko esketx batzuk eskaintzea gustatuko litzauguke, "Zatzaizkit eta natzaio" izenekoak. Bikote hori oso barregarria da, Euskaltzaindiaren poliziak dira eta umoreari lotuta gomendio batzuk eskaintzen dizkigute txortan ondo egiteko. Hemen duzue zuzeneko link-a: <https://www.youtube.com/watch?v=0uknX2cqC3s>





GURUTZEGRAMA EROTIKOA



Ezker-eskuin

- 7. Kanpoko aparatu genital, emakumearen organo tentekor
- 10. Ipurtzuloa
- 11. Aldakaren atzeko atal haragitsua
- 12. Emakumeen sexu-organoen kanpoaldea

Goitik behera

- 1. Eskuaren mugimendu leuna azalaren gainean
- 2. Kilikatu edo berotu norbait
- 3. Espermatozoideak duten likido opako zurixka
- 4. Kopulazioaren eta mikzioaren organo arra
- 5. Muin; pot
- 6. Gorputzak elkarri eman
- 7. Prostituzioan aritzen den pertsona
- 8. Emakumearen bular
- 9. Koito azkarra, abenturazale txiroentzat

HIZKI-ZOPA

Hemen daukazue 11 hitz erotiko. Ea guztiak aurkitzen dituzuen! Zenbat ezagutzen dituzue? Ikusiko dugu!!! Animoooo!

A	L	S	K	J	H	G	F	E	B	G	M	E	N
M	K	R	D	A	B	T	S	D	W	A	Y	L	P
S	A	U	S	T	A	T	P	C	U	L	K	I	O
T	O	R	L	A	R	I	S	I	N	T	I	A	P
D	F	I	O	O	K	A	T	U	N	Z	E	Z	X
X	U	B	K	A	T	E	R	B	A	A	X	T	R
Z	Z	A	R	T	A	I	L	U	R	R	K	A	O
J	N	D	M	K	N	Z	K	R	X	I	Z	K	N
Y	I	A	O	L	G	I	U	X	M	O	A	I	O
A	D	O	D	M	A	F	B	N	A	P	Z	F	R
B	U	L	A	R	R	E	T	A	K	O	M	I	N
G	O	G	O	A	K	M	A	I	Z	A	S	R	O
F	K	K	U	L	I	A	G	A	R	B	I	B	P
D	A	N	E	N	O	P	E	T	I	R	B	U	O
K	O	N	T	S	O	L	A	T	Z	A	I	L	E



RIMMEL

Hamabi orduko txanda bukatu nuen. Nekatu samar nengoen arren, egun berezia zen. Eskailerak jaitsi nituen, gogorik gabe, aldagelarantz abiatu nintzen eta han aurkitu nuen atzo gorde nuen arropa garbia, ondo lisatua. Prakak atera eta Txantreako kamiseta jantzi nuen, zapia lotu eta gerriko zahar bat jantzi nuen. Urtero pentsatzen dut, agian, beste gerriko bat erosi beharko nukeela, baina azkenean, ez dut inoiz erosten. Villabesako bus-geltokira abiatu nintzenean, gurasoek beren gizaki jaioberrientzat aukeratutako izenetan pentsatu nuen: Unai, Ane eta, noski, Fermin.

Gustatzen zait nire lana, baina ez da erraza Sanferminetan emagina izatea.

Lanetik irten eta autobusa hartzera joan nintzen.

Begirada azkar batez, lekua topatu nahian, urduri eta presaka sartu nintzen autobusean.

26 urteko gazte baten aurretik pasatu nintzenean, behartutako irribarre batekin agurtu ninduen, besterik ez. Ikusi nuena oso gustukoa nuen eta bihotzeko tau-padak azkartzeko moduko begirada egin nahi izan nion arren, ez zen horrelakorik gertatu.

Arnasa sakon hartu eta neure barnean lasaitzeko beharra neukala pentsatu nuen. Bere atzean eseri nintzen.

Autobusa kaleak poliki-poliki zeharkatuz zebilen; jaietako giroa dela eta, autoz, mozkorrezt eta zarataz leporaino zegoen dena.

Nire aurrean eserita zegoen polit eder horrek ezin ziotuen begiak mugikorreten aldendu. Aldi berean, konturatu nintzen eten gabe hasperenka zebilela telefonoaren pantaila miatzen zuen bitartean.

Zer demontre pasatzen ari da? Zertan dabil? -galdetu nion neure buruari.

Kuxkuxean nenbilen, hasierako fasean nengoen, segidan, zeharka ikusiagatik, irudia oso argia zen eta holaxe puntu-puntu iritsi zen neure burura.

Ez zegoen zalantzarik: han biluzik agertzen zena masturbatzen ari zen kameraren aurrean; eta berehala, bero samar nengoela konturatu nintzen. Lizunkeriak irudikatzen hasi nintzen, "bukaeraren" zain egoteak odolak irakiten zidan-eta.

Bat-batean, autobuseko algara eten zen, zezen plazako geltokira iritsi, eta gehienok jaitsi egin ginen. Bere aurretik berriro pasatu nintzen, eta orduan, bai, poztasun handiko agurra eskaini zidan.

Villabesatik kitzikatuta jaitsi nintzen, ez dakit autobusean ikusitakoagatik edo niri gerta zekidakeela uste izateagatik. Nabarrerria kalean lagunekin gelditu nintzen, betiko tokian. Kalderako kaletik pasatzen ari nintzeanean, erlojua arratsaldeko zazpiak jotzeko zegoen. Katxi edalontziak lurrean, San Miguel botilak lurrean apurtuta eta Don Simonen kaxak alde guztietan. Festa giroa!!!
Xarma tabernan gelditu nintzen eta hantxe, beti bezala, nire lagunak betiko martxan.

Begi bistakoa zen, ni ez bezala, hamaiketakoa eginda zeudela. Bapo janda eta majo edanda! Gainera, ez zen zaila somatzea "bazkaldu-denbora-galdu" esaldiaren defendatzaile amorratuak zirela.
Hura da mozkorra, hura!
Haiengana hurbildu nintzen.

Zaila da parrandatik at egotea, eta hor nengoen ni, gogo handirik gabe; Beñatek pasatu zidan katxia edaten hasi nintzen. Bat-batean pertsona bat ikusi nuen barran tragoa eskatzen. Oso erakargarria iruditu zitzaidan. Ile kizkurra zeukan eta kokozko belarritako handia. Zizurko gaztetxeko kamiseta txuria zeukan, eta prakek bere neurrira eginda zeudela ziruditen. Tabernan Gosereren *Rimmel* abestia entzuten zen: "*Printzesa arrosek zeharo nazkatzen naute...*" eta itsumustuan, biok hasi ginen dantzan eta elkarri begira.

Bere begiak ikustean, urduritasunak jota, tabernako leihora so egin nuen erabat lotsatuta. Nire begi mal-

tzurrek bere zuzeneko begirada eta leihoetik jaietako parrandak islatzen zuen giroa tartekatzen zituzten, mingainaz ezpainak leunki miazkatzen nituen bitartean.

Izerditan nengoen. Berarengana gerturatzeko bidea aurkitu nahi nuen, baina ez nekien nola. Berari gauza bera gertatzen zitzaiola zirudien. Keinuak egiten genituen eta jolas horrekin gerturatzen hasi ginen. Gero eta gehiago ari ginen gerturatzen... Bitartean, tabernan ozenki entzuten zen Gosereren abestiaren leloa: "*Goitik behera erantzi nazazu eta goazen ohera...*". Oso urduri nengoen, aldi berean kitzikatua; eta espero ez nuen bezala, nire ametsak betez niregana etorri zen muxu bat ematera, eta "*goazen komunera*" esan zidan.

Komunera sartu ginen. Nik ez dakit bera urduri zegoen ala ez, baina nik neuk kirioak dantzan nituen. Urduritasun hori kentzeko muxuak ematen hasi ginen: masailan, lepoan... Besarkatzen hasi ginen eta poliki-poliki gorputzeko hainbat atal ukitzen hasi ginen elkarri. Bat-batean nire eskuak bere praketara joan ziren eta arropa gainetik bere zakila laztantzen hasi nintzen. Aldi berean, berak kamiseta erantzi zidan eta titiburuak musukatzen hasi zitzaidan. Behin arropa gainetik laztantzen amaitzean, prakak eta galtzontzilloak erantzi eta zakila musukatzen hasi nintzaion. Tente ikustean, mingainarekin jolasean hasi nintzen. Bero-tuta geundela ikusita, txortan hasi ginen. Momentu oso berezia izan zen, eta, komunetik atera baino lehenago, bizpahiru muxu eman genizkion elkarri. Komunetik atera eta nire lagun Aitziberren ahotza entzun nuen, oihuka:

• Iñaki, non demontre zinen??? Goazen beste batera!!!



KUKUA

**Tik-tak, tik-tak, erlojuak martxan ai-ai
Tik-tak, tik-tak, motel bezain azkar;
tik-tak, tik-tak, denborak aurrera jarrai,
tik-tak, tik-tak, urduri bezain lasai.**

Ordua noiz iritsiko esperoan nago, eskolatik irteteko eta aitona-rengana joateko. Idatzitako olerkiak gustukoak izatea espero dut, hark egindako opari batean oinarrituta baitaude. Ez naiz oso iaioa idazten, baina aitona idazteko eta idazteko esaten dit, egina-ren poderioz ikasten delako; eta, hein handi batean arrazoi duela uste dut, irakurketarekin gauza bera gertatu zitzaidan eta.

Aitona Tomas, edo "Tomasito", amonak dioen moduan. Nik hari begiratu "Tomastzar" jarriko nioke, gizon handia baita; halere, maiteminduen kontuetan ez naiz sartuko, kontu horiek ez baitituz oso ondo ulertzen. Gaixorik dabil aspaldian, ez zirudien gauza larria, baina, tamalez, usteak erdia ustel. Azkenekotan omen dago, eta, sinesgaitza izan arren, zoritxarrez, sinetsi beharrean nago.

**Tak-tak, tak-tak,
bihotzaren kantak;
tak-tak, tak-tak,
gorputzaren notak;
Tak-tak, tak-tak,
taupadak.**

Medikuarenera joan zireneko eguna ez zait aise ahan-tziko. Halakoetan gustura etorri ohi ziren aitona-amonak gurera, baseritik herrira, landa eremutik kalera. Txango polita izaten zen, herrira jaitsi, herriko karriketatik paseatu, pare bat ardo pintxo banarekin, ezagunak agurtu eta gurera bazkaltzera. Egun berezia eta polita, "desberdina" hark zioen moduan. Kale zaratzatuak, baratzaren orde-z; jendea, abereak beharrean.

Amak erlojua opari eman zidan eguna ere ez zait ahaz-tuko. Baserrira joan ginen asteburua pasatzera, eta, bide batez, ospakizuna bertan egin genuen. Familia osoa bildu ginen: osaba-izebak, lehengusu-lehengusinak eta aldameneko baserriko bizilagunak. Bazkalostean, kan-delak itzali ondoren, amak oparia eman zidan; zirrara handiarekin hartu eta ireki nuen, eta hara non begiztatu nuen nik desira nuen erlojua: smartwatch-a! Pozez txo-ratzen nengoen, eta harrotasunez bertako guztiei esku-ratu nuen tresna berria erakusten eman nuen arratsalde osoa. Aitonaren txanda iritsi zenean, bere eskumuturrak erakutsi zizkidan; hutsik zeuden, erlojurik ez. Ordura arte ohartu gabe nengoen aitona ez zuela erlojurik erabiltzen.

Gaueko muxua ematera etorri zitzaidanean eskumuturretatik heldu eta erlojua ez erabiltzearen arrazoia zein zen galdetu nion. Berak, bere ohiko tenplearekin, tramankulu hori gizarte modernoaren gaitza, antina-turala... zela zioen, horretan baino hobe genukeela naturan arreta gehiago jarri! Baina aitona bi alde ditu, maitekorra eta zorrotza. Zuhurra izaten hasi arren, maitekorra izaten bukatu zuen, opari batekin, alajaina! Harria bezain gogorra zen gizaki hark, nahiz eta behin eta berriz gogorarazi tontakeriatan diru gehiegi xahutzen genuela, txunditu egin ninduen, emandako kutxatxo irekitzean, egurrezko horma-erlojua ikusi bainuen, kuku eta guzti!

**Kuku-kuku,
denboraren adierazle.
Kuku-kuku,
jarraipenaren seinale.
Kuku-kuku,
etenik gabeko melodia.
Kuku-kuku,
polita bezain ankerra.**



Horrela, aitzak oparitutakoa zela kontatu zidan, gaztea zenean kukuak zer egiten zuen jakin zuenean. Amarik gabe hezia zen aitona, gaztea zela hil zitzaion, eta izeba batek herrira eraman arte, aske hazitakoa izan zen naturan, lasai eta bakarrik; aitzak nahiko lan bazuen baserriarekin.

Behinola, basoan zebilela txori bat habia batetik arrautzak botatzen ikusi zuen. Harri eta zur geratu zen, ezin ulertu txoriak hori nolatan egin zezakeen; antinaturala, txitatu beharrean, bota egin zuen! Gauean afalostean ikusitakoa aitari kontatu zion. Honek, kukuak bere arrautzak erruteko beste hegazti batzuen habiak hautatzen dituela azaldu zion; baina horretarako, bertako arrautzak habiatik bota behar ditu aurrena berea erruteko, ondoren alde egiteko eta, azkenik, bere arrautza beste hegazti batek txitatzeke. Aitona lur jota geratu zen, triste, eta ama hiltzean isuri gabeko malkoak bota

zituen, bat-batean, hark sentitutako zorigaitza loratu izan balitz bezala. Aitari, semearen atsekabea ikusita, kukudun horma-erlojua oparitzea otu zitzaion; horrela, ama presente egon ez arren, kukua entzutean maitatutako emakumea gogoan izango zuten.

**Kuku-kuku,
aditzen da basoan.**

**Kuku-kuku,
kukututa zaude.**

**Kuku-kuku,
entzuten dut etxean.**

**Kuku-kuku,
sentitzen dut bihotzean.**

**Kuku-kuku,
zeruan zaude.**

**Kuku-kuku,
bihotzean gorde.**

Baina, orduan, ez zen familiako bazkaririk etxean egin. Eskolatik irten eta ziztu bizian etxera joan nintzen, betiko legez, haiekin bazkaltzera, haiek besarkatzera, haiekin egotera... A ze ezustekoa atea ireki, eta ama bakarrik topatzea, haren begiak malkoz beterik ikustea. Isurtzen ikusi gabeko tanta haiek lurrera iltzatu ninduten. Denbora gelditu zelako irudipena sentitu nuen, erlojuaren tiiiiiik-taaaaaakkk hori ohi baino luzeagoa bizi izan bainuen. Nire gorputzak haren berotasuna sentitu arren, pairatu berri nuen hotzikarak ez zituen nire hezurak epeldu. Negar egin genuen, hitz egin eta soinurik gabeko garrasiak bota.

Aitona, amaren aita, baserrikoa, naturala. Jaiotako etxean hilko dena. Aurki betiko kukutuko dena, baina aurretik hainbat kuku entzungo ditugu, batera eta elkarrekin. Nire lehen olerkiak eskainiko dizkiot, berak bere lehen erlojua eman zidan moduan; eta etxeko atarian, kukua entzuten ez denean, Oskorriren Kukua abestia entzungo dugu, berak ahal duen arte.

Ringggggg, ringggggg

txirrina.

Banoa

baserkira!



doratatu eura hizkuntza

hizkuntza jakinduria da

hizkuntza kultura da